

Nerea Erbiti

MUSIKAREN INDUSKETETAN



AHOTSA ETA INPROBISAZIOA, INDUSKETARAKO TRESNA

“Nerea Erbiti naiz, musikaria. Ahotsa da nire musika tresna nagusia, baina trikitia, txalaparta, panderoa, perkusioa eta pianoa ere jotzen ditut. Orain Nerea Erbiti & Eskola Ergatiboa proiektuan murgilduta nago, baina beste hainbatetan ere ibiltzen naiz: Lurpekariak, Joseba Tapia, En-kantu, Broken Brothers Brass Banda... batzuetan partaide eta besteetan kolaboratzaile. Euskalerria Irratian kolaboratzailea ere banaiz, irakaslea ere bai: AAHM eskolan eta Nafarroako goi mailako kontserbatorioan ematen ditut klaseak, eta *voice craft* ahots sisteman espezializatua nago. Tradizioa, inprobisazio askea eta musika urbanoa dira gaur egun nire interes nagusiak, eta horien bilaketan aritzen naiz. Ahotsa eta inprobisazioaren bidez egiten dut bilaketa hori”.

“Nire benetako kulturarekin harremanik ez badut, zer dut?”

Arkeologoa fosilari bezala aritzen zaio Nerea Erbiti musikari, geruzak banan bana kentzen, denboran atzerako bidaian. Jazza eta musika beltzaren inguruan aritzen da, baina sentitzen du eremu horretan bere ekarpen propioa egiteko beharra. Euskal tradizioa nahi du erantsi, hain justu, eta erro horien bilaketetan aritzen da trebe.

✍ ANDER PÉREZ 📷 JOSU SANTESTEBAN

Zer aurki liteke musikaren indusketetan?

Indusketetan, zailena izaten da ateratzen ari zaren gorpu edo fosil hori ez haustea. Guri grabaketak dauden unetik aurrerako musika ailegatu zaigu; grabaketekin musika barreiatzen hasi zen, nahasi zen beste musika batzuekin, eta beraz, indusketa lan horretan, erroetara iristeko, kapa horiek kentzen jakin behar da.

Zeri deitzen diogu “tradizio”?

Niretzat gure arbasoek egiten zutena da, haien adierazteko era. Naturarekin harremanetan zeuden gure arbasoak nola espresatzen ziren? Zertarako erabiltzen zuten musika? Haien egunero bizitzan oso garrantzitsua zen. Hori dena ez zaigu iritsi, garai batean ahoz aho egiten zelako. Oiloak arrautza jartzen zuenerako ere bazen kanta bat. Eta hori galdu da. Oso gutxi dira etxean afaldu eta kantatzen jartzen direnak. Telesailak ikusten aritzen gara.

Tradizioa badago, edo bilatu egin behar da?

Kontua ez da tradizioa hartu eta

imitatzea, edo berdin erreproduzitzea. Kontua da tradiziotik zer erro hartuko dugun gaur egun daukagun nahaste-borraste honetara, edo ikasi dugun musiketara, ekartzeko. Ez da egia absolutu bat. Nik betebeharrak sentitzen dut: tradizioa hartu eta niri iristen zaidana interpretatu. Noski, eraldatu behar da, gaurkotu behar da, bestela hor geldituko da. Baina ezin da dena alde batera utzi, beste musika bat ikasi eta esan: “Nik rock talde bat dut” edo “nik 90eko popa egiten dut”. Horrek ez nau betetzen.

Eta zerk betetzen zaitu?

Sentitzen dut tradizioa, orain arte, alde batera utzi dudala: kontserbatorioan ikasten hasi nintzenean, nolabait uko egin nion nire tradizioari, abesteko erari, ez nuen ez hizkuntzarik ez deus. Nik trikitia jotzen nuen, panderoa, txalaparta, eta ez dakit komplexua zen, baina...

Ez zizun balio moderno izateko.

Hori sentitzen nuen. Ideia horrekin hasi nintzen beste musika batzuk ikasten, eta jazzean sartu nintzen. Bat



"OILOAK ARRAUTZA JARTZEN ZUENERAKO ERE BAZEN KANTA BAT. ETA HORI GALDU DA. OSO GUTXI DIRA ETXEAN AFALDU ETA KANTATZEN JARTZEN DIRENAK. TELESAILAK IKUSTEN ARITZEN GARA".

-batean ohartu nintzen: ni zer ari naiz hemen, Nafarroan, jazza abesten? Ez da nire hizkuntza. Jazz aabesten dutenak New Orleansen daude, eta ez dut eginen haiek baino hobe. Eta pentsatu nuen: zein naiz ni? Nondik heldu naiz? Zer ekarpen egin dezaket? Nire egiazko tradizioa. Eta orduan, hasten zara atzera egiten, bilatzen, interesatzen, eta agertzen zaizu hemendik kantutegia, handik ahots bat...

Zertan zaizu hori baliagarri?

Iruditzen zait abesteko nortasuna ematen didala, errealitate bat, nire buruarekin zintzoa izatea. Atzera begira aurrera begira baino gehiago ireki dut burua. Hizkuntza bat mantendu behar dugun bezala, zein garen ere ez dugu ahaztu behar. Ez du balio euskalduna izateak eta euskaraz egiteak, baina gero taberna batera joatea reagettoa dantzatzera. Nire eguneroko bizitzan nire benetako kulturarekin edo nire benetako zerbaitekin harremanik ez badut, zer dut? Hor haustura bat dago.

Zuretzako zer da euskal musika euskal musika egiten duena?

Zer da euskal musika eta zer ez? Moceades euskal musika da? Oso zaila egi-

ten zait definitzea. Badago dioenik, nik, jazz talde bat egin eta euskaraz abesten badut, euskal musika egiten ari naizela. Bada tira, ez dakit, goazen eztabaidatzera. Niretzako ez dago argi. Gehiago nago ezezkoan.

Beraz, hizkuntza ez da euskal musika zehazteko funtsezko irizpidea?

Ez, beste zerbait da. Espresatzeko era bat da. Kanpotik etortzen denak esaten du euskaldun bat lagun egitea oso zaila dela, baina behin eginda betirako laguna dela. Musikan ere badugu espresatzeko era bat. Badago zerbait euskalduna, izatera bat. [Mikel] Laboa euskal musika da? Esango baligute euskal musikaren izen bat aipatzeko, denok esango genuke: Laboa! Baina Laboak asko edan du kanpoko musikatik, Billie Holidayrengandik adibidez, eta hori bereganatu du. *Komunikazio-Inkomunikazioa*-n batzuetan erdaraz ari da... Eta euskal musika da? Bai!

Zer du euskal musikak musika beltzetik?

Iruditzen zait norbere identitatea mantentzea, zure buruari fidela izan eta konplexurik gabe aurrera egitea oso beltza izatea

dela. Eta, bestalde, euskal musikak asko du jazzetik, inprobisaziotik: melodiak, erritmoa, edo bertolaritza bera; ari gara letra momentuan asmatzen. Txalapartan edo panderoan ere inprobisatzen da.

Eta zer du musika beltzak, euskal musikak ez duenik?

Gaur egungo abeslari beltz bat aditzean, tradizioa aditzen zaio. Eta guk, hainbeste edan dugu beste musika batzuetatik, ez dugula mantendu. Herritik hirira joatean bezala: hirira joatean nire aitona erdaraz egiten zuen, ez zekien, baina erderaz egiten zuen.

Musikak badu garairik? Edo atemporala da?

Musika berri bat sortu den bakoitzean, uneko gizarteari erantzun bat emateko izan da. Tradizioa ere garai batekoa da, garai bateko beharrak erantzuten ditu. Beraz, gaur tradizioa hartu eta imitatzen badut, Mikel Laboa imitatzen hasten baina, Mikel Laboaren imitatzailer bat izanen naiz. Aditu behar dut, bilatu behar dut berak bilatzen zuena, eta horrekin zerbait egin. Berarengandik ikasi behar dut, konplexurik gabe. Uko egiten diogu horri. ●